


Zarauzko Ikastolari laguntza

Jakingo duzuen moduan, Hezkuntza Sailak 140.000 euroko isuna jarri dio Zarauzko Ikastolari. Dagoeneko, isunaren erdia baino gehiago jaso dute, baina oraindik asko falta da.



Gure babesa adierazi eta isunari aurre egiten laguntzeko, EKARPEN-BOLUNTARIOAK biltzeko kanpaina jarri nahi dugu martxan gure ikastolan ere. Hainbat bide daude ekarpena egiteko:

- Zuen seme-alaben bitartez jaso duzuen sobrean, nahi duzuen ekarpena egin. Sobrea itxita, zuen seme-alaben tutoreari helarazi.
- DBH-ko eraikineko erdiko aretoan, ekarpenak jasotzeko armairu bat jarri dugu EKARPEN BOLUNTARIOAK jasotzeko. Ekarpenak egiteko azken eguna, **gaur otsailak 21** izango da.
- Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako kontu korrontera trasferentzia bat egin. Kontu zenbakia: **ES73 2095 5212 1091 2486 7983**
- **Bizum bidez**, [hemen klikatuta](#)

Otsailak 28, inauteriak

10:30ean: **HHko dantza saioa** Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra egingo balu, ikastolako frontoian egingo genuke.

11:00etan: **DBHko eta LHko desfilea** kaleetan zehar

11:45ean: **DBHko dantza ikuskizuna** kiroldegian

15:30ean: **LHko dantza ikuskizuna** kiroldegian

Ikusleentzako oharra:

Ikusleentzat atea emanaldia baino 20 minutu lehenago irekiko dira kiroldegiko zelaiaren kanpo aldetik. DBHko ikuskizunerako sarrera libre izango da, aforoa bete arte. Arratsaldeko LHko ikuskizunerako, aldiz, LHko ikasle bakoitzari, ikastolan bertan txartel bana eman zaio eta soberan geratu diren txartelak hemen [klikatuz eskatu](#) ahal izango dituzue. 55 sarrera daude, hauek bukatzean galdetegia itxiko da. Txartelak ikasleei emango zaizkie ostirala baino lehen.



HAUR HEZKUNTZA

Bilera pedagogikoak

Otsailaren 24an eta 25ean, HHko familiei zuzendutako bilera pedagogikoak egingo ditugu:

- HH3: otsailak 25, 16:45ean
- HH4: otsailak 25, 16:45ean
- HH5: otsailak 24, 16:45ean

OHARRAK: Zaintza zerbitzua egongo da.

Bilerak haurren geletan egingo ditugu.



Inauteriak

Datorren ostiralean, otsailak 28, goizeko 10:30ean inauteri-festa egingo dugu Mikel Laboa plazan, eguraldi txarra egingo balu ikastolako frontoian egingo genuke.

Goizean haurrak zakuarekin jantzita etorriko dira gelara eta, nahi duena, galtzerdi-abarkak oinetan jantzita. Aurten, iaz bezala, gela bakoitzean **AURPEGIAK MARGOTZEKO TXOKO** bat jarriko dugu 9:00etatik 9:45era. Beraz, gurasoek aukera izango duzue norbere haurrari eta gainontzekoei aurpegia margotzeko. Nahi duenak etxetik margotuta etortzeko aukera ere izango du.



Eguerdian haurrak ikastolan bertan jasoko dituzue, beti bezala.

OHARRA: Arratsaldean ere haurrak zakua jantzita bidali, gure inauteri eguna 16:30ean bukatzen baita.

HH 5ekoek baso-eskolarik ez

Datorren asteazkenean, **otsailak 26, HH5eko haurrak EZ DIRA BASOESKOLARA** joango, inauterietako entsegua izango baitute.



Zorriak

HH4 eta HH5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK
ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 1eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK
ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LH Inauteriak

Gaur ostirala, hilak 21, LHko ikasle bakoitzari inauterietako kiroldegiko ikuskizunera sartzeko **txartel bana** emango zaio.

Familiaren batek joan ezin badu, ikasleak txartela tutoreari bueltatzea eskertuko dizuegu, beste pertsona batzuei emateko.



LH6-ko familientzat oharra

2. hiruhileko honetan, LH 6ko ikasleek zesta puntako hastapen saioak izango dituzte. Ordubeteko 4 saio izango dira eta Gipuzkoako Euskal Pilotako federazioko irakasle espezialistak izango dira saio horiek aurrera eramango dituztenak. Kostua **4€** izango da.



DBH 3ko ikasleen irteera

DBH3. mailako ikasleak Plastika ikasgaiaren barruan **datarren ostegunean**, otsailaren 27an, **Tabakalerara** joango gara. Bertan, Medialab-en eta hezkuntzako taldearekin kultura garaikidera gerturatu eta lantegi ezberdinak egingo ditugu. Horrez gain, Tabakalerako eraikina ezagutu eta bertan dauden proposamen eta aukerak ezagutuko ditugu.

(Mugi txartela ekarri behar dute)

